

NEKATUTA AL ZAUDE ENTZUTEN...

ODOLAK IRAKITEN AL DIZU
ZURRUMURRU XENOFOBOAK

ETA ARRAZISTAK ENTZUTEN DITUZUNEAN?

NI EZ NAIZ
ARRAZISTA...BAINA...



"ZURRUMURRUEN AURKAKO"
ESTRATEGIAK ETA ARGUDIOAK

"ETORKINEK SOLDATAK JAITSI ETA
LAN-BALDINTZAK OKERRAGOTZEN DITUZTE"



EZJAKINTASUNAK, OROKORTZEAK, DISKURTSO ARRAZISTAK ETA XENOFOBOAK SORTZEN DITUZTE

ESTEREOTIPOAK
(PENTSATZEN DUGUNA)

AURREIRITZIAK
(SENTITZEN DUGUNA)

ZURRUMURRUAK
(ESATEN DUGUNA)

DISKRIMINAZIOAK
(EGITEN DUGUNA)

*"Lana kentzen digute diru gutxiren truke" (...)
"Edozein gauza onartzen baitute"*

"EZ BALEUDE" BEZALA JOKATUKO AL DUZU?

DISKRIMINAZIOTAN BITURTzea ONARTUKO AL DUZU?

EDO NANTIAGO DUZU "DESAKTIBATU" DISKRIMINAZIOA SAHETSEKO ETA ELKARBIZITZA ERRAZTEKO?

...BAINA... NOLA "DESAKTIBATU" DEZAKET ZURRUMURRU BAT?
HASTEKO ERABILI ESTRATEGIA HAUEK!!!

BILATU HARREMAN KOMUNAK ETA MANTENDU JARRERA
ETA DISKURTSO POSITIBOAK!!!

Guztiok izaten ditugu aurreiritziak eta estereotipoak, sarritan gure beldurrekin eta kezkekin lotura izaten dutenak. Saihestu beste pertsona bat barregarri uztea edo hura erasotua edo mindua sentitzea.

Soilik horrela eraiki dezakegu

elkarrizketa konstruktibo bat, zurrumuru bat "desaktibatuko" aukera emango diguna.

NIK ERE
ENTZUN DUT, BAINA
PENTSATU NUEN...

ULERTZEN DUT ZURE
EGOERA, BAINA BENETAN
USTE DUZU
HORI DELA ARAZOA?...

NORK
ESAN DIZU?

SAIHESTU PRESAKA IBILTZEA, GALDERAK
EGIN, EMAN BIDEA JAKIN-MINARI
ETA SUSTATU IZPIRITU KRITIKOAK!!!

NON
ENTZUN DUZU
HORI?

Momentu batean zurrumurru bat "desak-
tibatuta" ahal izango duzula pentsatzea ez da zuzena. Per-
tsona batek zerbait zalantzan jartzea lortzen baduzu jadanik
arrakasta itzela da eta gainera, zure iritzia zuzenean inposatzen saiatzea baina
eraginkorragoa izango da.

ZIUR
AL ZAUDE HORI
HORRELA DELA?

BERTAKOOK
ENTZIERROAN LASTER EGITEN
DUGU ETA SANGRIA EDATEN
DUGU?

ZALANTZAN JARRI
OROKORTZEAK!!!

PERTSONA BATENGATIK
"DENEK" ORDAINDU
BEHAR AL DUTE?

Galdetu kasu zehatz batek kole-
ktibo osoa identifikatzen duen
edota egoera zein jarrera zehatz
baten arrazoiak pertsona bati soilik dagozkion, edo-
ta tartean bestelako arrazoiak dauden (pertsonalak,
sozio-ekonomikoak, politikoak, legezkoak, etab.)

ZEIN DA ARAZOA,
"GERTATU DENA" EDO
"KANPOKOA IZATEA"?

HORRELA LORTUKO DUZU ELKARRIZKETA BAT IZATEA
"ROLLO TXARRIK GABE" ZURRUMURRU HORI ZABALDU DUEN PERTSONAREKIN!

...ETA HALABER ONDORENGO GALDERAK ETA ARGUDIOAK ERABIL DITZAKEZU!!!




"ETORKINEK SOLDATAK JAITSI ETA LAN-BALDINTZAK OKERRAGOTZEN DITUZTE"

Hori esaten duena "ziurtatzen ari da" pertsona atzerritarrak:

- Soldatak jaistea eta lan-baldintzen hondamendia pertsona atzerritarren errua dela.
- Pertsona atzerritarrek nahiago dutela kontraturik gabe, soldata baxuekin eta lan-baldintza prekarioetan lan egin.

Adierazpen horiek zalantzan jartzeko, ondorengo galderak egin ditzakegu:

- Benetan uste al duzu lan egoera okerragoan dauden pertsonak direla soldatak jaitسي eta lan-baldintzen hondamendiaren errudunak? Ba al dakizu zergatik jasaten ditugun soldata eta lan-baldintza gero eta okerragoak?
- Eta zergatik guztiok onartzen ditugun gero eta enplegu kaskarragoak?
- Ba al zenekien "atzerriko" pertsonak lan-kontratu bat behar izaten dutela "paperak" lortzeko edota mantentzeko? Eta lana galtzen badute langabezian geratzeaz gain kanporatuak izan daitezkeela?



GALDERA HORIEK ABIAPUNTUTZAT HARTUTA, ZURRUMURRU HORI DESMONTATZEKO ONDORENGO ERANTZUNAK ERABILI AHAL IZANGO DITUGU:

1. Benetan uste al duzu lan egoera okerragoan dauden pertsonak direla soldatak jaitsi eta lan-baldintzen hondamendiaren errudunak?

Azterriko pertsonak biktimak dira eta ez errudunak lan baldintzen hondamendiaren aurrean.

2. Ba al dakizu zergatik jasaten ditugun gero eta soldata zein lan-baldintza okerragoak? Eta zergatik guztiok onartzen ditugun enplegu gero eta kaskarragoak?

Soldatak jaisteko eta lan-baldintzak okerragoatzeko benetako arrazoiak aurkitu nahi badituzu, pentsatu sistema ekonomikoan, lan-erreforman eta enpresetako politketan.

Langabeziaren mehatxuak eta gure egoera pertsonalek, enplegu gero eta kaskarragoak onartzera bultzatzen gaituzte.

3. Ba al zenekien "atzerriko" pertsonak lan-kontratu bat behar izaten dutela "paperak" lortzeko edota mantentzeko? Eta lana galtzen badute langabezia geratzeaz gain kanporatuak izan ahal direla?

Azterriko pertsonak egoera bereziki zailak jasaten dituzte, atzerri-tartasun legea, "paperak" lortzeko lan-kontratuarekiko erabateko mendekotasun,a eta euren migrazio-prozesuaren baldintzak zein ondorioak tarteko.



ARGUDIOAK

1. Benetan uste al duzu lan egoera okerragoan dauden pertsonak direla soldatak jaitsi eta lan-baldintzen hondamendiaren errudunak?

Azterriko pertsonak biktimak dira eta ez errudunak lan baldintzen hondamendiaren aurrean.

- Atzerriko pertsonen langabezia maila, biztanleriaren kolektiboarekin konparatuta, ia hirukoitza da, eta aldi berean, lan-baldintza okerragoak dakartzaten sektore eta okupazioetan aritzen dira. Hori dela eta, atzerriko pertsonak soldaten jaitsiera eta lan-baldintzen hondamendiaren erruduntzat hartzea, kontraesana da.
- Zentzu horretan, badaude beste kolektibo batzuk bereziki kalteuak direnak langabezia edota lan-prekarietatearen ondorioz: emakumeak eta gazteak, adibidez. Hortaz, emakumeak eta gazteak soldatak jaitea eta lan-baldintzen okerragoetzaaren erruduntzat jotzen ditugu? Kolektibo horiek guztiak bereziki, eta langile-taldea oro har, ez dira errudunak, biktimak baizik, soldata eta lan-baldintzen hondamendiari dagokionez.
- Kontutan hartu behar dugu ere, atzerriko pertsonak bereziki, lan-baldintza prekarioak dakartzaten sektore eta okupazioetan aritzen direla. Hau da, sektore horien prekarietatea ez dela areagotu pertsona etorkinak etorri direlako, baizik eta lan-baldintzak berak bazirelako prekarioak berez.

2. Ba al dakizu zergatik jasaten ditugun gero eta soldata zein lan-baldintza okerragoak? Eta zergatik guztiok onartzen ditugun enplegu gero eta kaskarragoak?

Soldatak jaisteko eta lan-baldintzak okerragoetza benetako arrazoiak aurkitu nahi badituzu, pentsatu sistema ekonomikoan, lan-reforman eta enpresetako politketan.


Langabeziaren mehatxuak eta gure egoera pertsonalek, enplegu gero eta kaskarragoak onartzera bultzatzen gaituzte.

- Enpleguaren hondamendia eta lan-baldintzen prekarizazioa ulertzeko benetako arrazoiak bilatzeko orduan, lehenik eta behin enpresa handietako (bereziki multinazionalak) espekulazio finantzarioa eta irabazien maximizazioa ahalbidetzen dituen sistema kapitalista aztertu behar da, langileen lan-baldintza eta bizimoduaren kontura garatzen dena, besteak beste.
- Hortik abiatuta, gogorarazi dezakegu langabezia hedatuz doan neurrian, enpresek errazago dutela soldatak eta lan-baldintzak kontrolatzea eta behera egin dezaten presionatzea.
- Baina hori ezinezkoa izango litzateke enpresa handien beharretara bideratuago dagoen laneko legedia indarrean ez balego; lan-baldintzen hondamendia sortuz alegia, eta horrekin batera kaleratzeko erraztasuna, negoziazio kolektiboaren ahultasuna eta laneko iruzur zein abusu etengabeak garatzeko bidea. Eta guztiok gaude bere eraginpean, gure jatorria edozein delarik ere.
- Egoera honen aurrean, guztiok lan-baldintza gero eta okerragoak (eta sarritan legez kanpokoak) onartzera behartuta sentitzen gara, lan-merkatuko egoeraren ondorioz hala nola geure egoera pertsonala, familiakoa, lanekoa, ekonomikoa, etab. kontuan hartuta.

3. Ba al zenekien “atzerriko” pertsonen lan-kontratu bat behar izaten dutela “paperak” lortzeko edota mantentzeko? Eta lana galtzen badute langabezia geratzeaz gain kanporatuak izan ahal direla?

Azterriko pertsonen egoera bereziki zailak jasaten dituzte, atzerri-tartasun legea, “paperak” lortzeko lan-kontratuarekiko erabateko mendekotasun, a eta euren migrazio-prozesuaren baldintzak zein ondorioak tarteko.

- Baina horrez gainera, atzerriko pertsonen sarritan lan-egoera eta egoera pertsonal oso larriak jasaten dituzte. Ahaztu gabe euren egoera ekonomikoagatik eta atzerriko pertsonen egoeragatik (edo atzerriko emakumeak izateagatik) diskriminazioak eta gehiegikeriak jasaten dituztela.

- 
- Lehenik eta behin, pertsona iritsi berriak oro har egoera ekonomiko oso konplexuaren eraginpean aurkitzen dira; migrazio ibilbide osoaren kostuagatik, familiei bidaltzen dieten diruagatik, eta euren behar pertsonalengatik. Errealitate honek, bereziki ezegonkorra eta babesgabea den egoera baten aurrean ezartzen ditu, bai harrera gizartea ezagutzen ez dutelako, edota familia zein giza babeserako sarerik ez dutelako.
 - Bestalde, pertsona atzerritarrek gutxienez urte bateko lan-kontratu bat behar izaten dute lanerako baimena lortzeko; edo gutxienez daukaten baimenaren epearen erdia kotizatu izana, berritu ahal izateko. Baldintza horiekin, beste behin ere pertsona hauek ageriko babesgabetasun eta mendekotasun egoeran ezartzen dira lan-kontratuari dagokionez (baldintzak edozein direla ere), izan ere, euren migrazio eta bizitza proiektu osoa haren araberakoa izango da
 - Lan-kontratu batekiko mendekotasun honen eraginez, atzerriko pertsona batek beti lan-kontratu batekin lan egitea lehentetsiko du, bestela herrialdetik kanporatua izan ahal delako. Soilik onartuko du kontraturik gabe lan egitea egoera irregular batean aurkitzen denean, alegia lanerako baimena eskuratu ezin izan duenean.
 - Hori horrela, geure buruari galdetu ahal genioke, nolako lan-baldintzak onartuko genituzke egoera horietan aurkituko bagina? Atzerriko pertsonak errudunak al dira egoera horiek onartzera behartuta egoteagatik, edo biktimak dira sistema ekonomiko, lan eta atzerritartasun esparruetako lege eta erabaki horiek hartzerara behartzen dituzten enpresa praktika ezberdinen mendean aurkitzen direlako?